AULESTIKO UDALA

BALDINTZA TEKNIKO ZEHATZEN AGIRIA OBRAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEKO

LEIZARRA ETA ITURRITZE INGURUAN 2021eko azaroaren 28ko euriteek KALTETUTAKO BIDE ZATIAK KONPONTZEKO LANAK (FMA)

PLIEGO DE CLAUSULAS TÉCNICAS PARTICULARES DE CONTRATO DE OBRAS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO

REPARACION DE LOS CAMINOS A LEIZARRA E ITURRITZE DAÑADOS POR LAS LLUVIAS TORRENCIALES DEL 28/11/2021 (FMA)

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: **Leizarra eta Iturritze inguruan 2021eko azaroaren 28ko euriteek kaltetutako bide zatiak konpontzeko lanak (FMA)** obrak egitea, kontratu izaera izango duen espedientean dagoen dokumentazio teknikoa jarraituz.

Kontratuaren xedeari dagokion CPV nomenklaturaren kodea:

45233140-2 Bide obrak.

2. OBRAK BURUTZEKO EPEA

- Kontratu honen xede diren obren fase bakoitza burutzeko epea hau da: SEI (6) HILABETE, hasierako akta egiten denetik hasita.
- Kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Lizitatzera ateratzen diren ekintzen aurrekontua ondorengoa izango da:

BERROGEITA HAMAZORTZI MILA EHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (58.141,73 €) izango da, gehi BEZri dagozkion HAMABI MILA BERREHUN ETA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (12.209,76 €). Lizitatzaileek aurrekontu hori hobetu dezakete.

Era honetan banakatzen da:

ENA GO+MI BARNE: 58.141,73 €
%21 BEZ: 12.209,76 €

I.- CONTENIDO DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la ejecución de de **reparacion de los caminos a Leizarra e Iturritze dañados por las lluvias torrenciales del 28/11/2021 (FMA)** de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente, que tendrá carácter contractual.

Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato:

45233140-2 Obras viales.

2. PLAZO DE EJECUCION

- El plazo máximo de ejecución de cada fase de las obras objeto de la presente contratación será SEIS (6) MESES, desde el acta de inicio.
- El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

3. PRESUPUESTO DE LICITACIÓN

El presupuesto base de las actuaciones sacadas a licitación será el siguiente:

CINCUENTA Y OCHO MIL CIENTO CUARENTA Y UN EUROS Y SETENTA Y TRES CENTIMOS (58.141,73 €), más DOCE MIL DOSCIENTOS NUEVE EUROS Y SETENTA Y SEIS CENTIMOS (12.209,76 €) correspondientes al IVA, presupuesto que podrá ser mejorado por los licitadores.

Se desglosa como sigue:

BASE INCLUIDO GG+BI: 58.141,73 €
21% IVA: 12.209,76 €

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da, behar den bezala banakatuak. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean.

Balio estimatua hau izango da:
58.141,73 € (BEZ gabe).

4. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleitzailearen esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, HAMABI (12) HILABETEKO epea egongo da harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, kontratistak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, kontratistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleitzailearen esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

5. BALIOESTEKO IRIZPIDEAK.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEAK	100 puntu
1. Proposamen ekonomikoa. Baloratuko da puntuaketa altuena proposamen ekonomiko baxuenari emanez, formula hau jarraituz: Proposamen ekonomiko baxuena ---------- x 75 Baloratu beharreko proposamena Eskaintzek balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituztela ulertuko da, baldin eta zenbatekoa onartutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino % 20 baino txikiagoa bada.	100 puntu

Dentro del precio del contrato se entenderán incluidos los precios unitarios, debidamente desglosados. De hecho, esos precios regirán durante la duración del contrato.

El valor estimado será de:
58.141,73 € (sin IVA).

4. RECEPCIÓN DE LAS OBRAS Y PLAZO DE GARANTÍA

En el plazo máximo de un mes desde la finalización de las obras se producirá el acto formal y positivo de recepción de las mismas, del que se levantará la correspondiente acta.
Asimismo, se establece un plazo de DOCE (12) MESES, a contar desde la fecha de recepción formal, que se fija como garantía a los efectos previstos en la Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

No obstante, si la obra se arruina con posterioridad a la expiración del plazo de garantía por vicios ocultos de la construcción debido a incumplimiento del contrato por parte del contratista, responderá éste de los daños y perjuicios durante un plazo de quince años a contar desde la recepción. Transcurrido este plazo sin que se haya manifestado ningún daño o perjuicio, quedará totalmente extinguida la responsabilidad del contratista.

5. CRITERIOS DE VALORACIÓN.

Los criterios de valoración de las ofertas que han de servir de base para la adjudicación del contrato y la ponderación que se les atribuye son los siguientes:

CRITERIOS DE APRECIACIÓN AUTOMÁTICA:	100 puntos
1. Proposición económica. Se valorará adjudicando la mayor puntuación a la propuesta económica más baja, de acuerdo a la siguiente fórmula: Proposición económica más baja ---------- x 75 Proposición a valorar Se considerará que las ofertas presentan valores anormales o desproporcionados en caso de que la cuantía sea inferior en más del 20% a la media aritmética de las ofertas admitidas.	100 puntos

• Eskaintzak baztertu egingo dira, baldin eta egiaztatzen bada oso baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dituztelako betetzen estatuko edo nazioarteko ingurumen, gizarte edo lan arloetako betebeharrak, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, SPKL, 201.	

• Se rechazarán las ofertas si se comprueba que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes, en aplicación de lo establecido en el art. 201 LCSP.	

6. LIZITATZAILEEK ESKURAGARRI DUTEN DOKUMENTAZIOA.

- **Leizarra eta Iturritze inguruan 2021eko azaroaren 8ko euriteek kaltetutako bide zatiak konpontzeko lanak, memoria baloraua** .

Espediente honi buruz edozein azalpen emateko edo ekimena burutu nahi den gunea bisitatu ahal izateko, Udal Arkitektoari deitu ahal zaio.

Tfnoa.: 94.6279006
E-maila: idazkaria@aulesti.eus

Aulestin 2022ko urriaren 26an.

6. DOCUMENTACIÓN A DISPOSICIÓN DE LOS LICITADORES.

- **Memoria valorada para la reparación de los caminos a Leizarra e Iturritze de los daños causados por las lluvias torrenciales del 8/11/2021**.

Para cualquier aclaración sobre el presente expediente o para formalizar una visita a la zona de actuación pueden ponerse en contacto con el Arquitecto Municipal.

Tfno.: 94.6279006
E-mail: idazkaria@aulesti.eus

Aulesti a 26 de octubre de 2022.